Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

785

EBAZPENA, 2011ko urtarrilaren 24koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita handitu egin dela 2011-2013 epealdian oinarrizko eta/edo aplikatutako ikerketa proiektuak, elkarlanekoak eta giza- eta gizarte-zientzietakoak egiteko laguntzetarako deialdiaren aurrekontuaren zenbateko osoa, eta aldatu egin dela aurrekontu horren urtekako banaketa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko ekainaren 8ko Aginduaren bidez, 2011-2013 epealdirako oinarrizko eta/edo aplikatutako ikerketa proiektuak, elkarlanekoak eta giza- eta gizarte-zientzietakoak egiteko laguntzak emateko deialdia egin zen.

Deialdiaren 1.2 artikuluaren arabera, laguntza horietarako 493.783 euro emango dira, honela banatuta: 2011ko ekitaldirako, 228.248 euro; 2012ko ekitaldirako, 148.681 euro; eta 2013ko ekitaldirako, 116.854 euro. Diru hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-sailaren kontura emango da.

1.3 artikuluaren arabera, deialdiaren zenbatekoa aldatu ahal izango da, guztira eskatutako laguntzen zenbatekoa kontuan hartuta, beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren agortu gabe gerta litezkeen aurrekontuen arabera, eta laguntza horiek ebatzi aurretik.

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Deialdiaren zenbatekoari 151.752 euro gehitu zaizkiola eta urtekako banaketa aldatu egin dela jakinaraztea. Zenbatekoa, guztira, 645.535 eurokoa da, eta honela banatuko da: 380.000 euro 2011. urterako, 148.680 euro 2012. urterako eta 166.855 euro 2013. urterako.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

785

RESOLUCIÓN de 24 de enero de 2011, del Viceconsejero de Universidades e Investigación, por la que se da publicidad al incremento de la cuantía global y a la modificación de la distribución por anualidades, del presupuesto de la convocatoria de ayudas para la realización de proyectos de investigación básica y/o aplicada, proyectos en cooperación y proyectos en humanidades y ciencias sociales para el periodo 2011-2013.

De conformidad con la Orden de 8 de junio de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas para la realización de Proyectos de Investigación Básica y/o Aplicada, Proyectos en Cooperación y Proyectos en Humanidades y Ciencias Sociales para el periodo 2011-2013.

Visto el artículo 1.2 de la convocatoria que expresa que se destina al objeto de las ayudas la cantidad de 493.783 euros distribuida de la siguiente manera: 228.248 euros durante el ejercicio 2011, 148.681 euros durante el ejercicio 2012 y 116.854 euros durante el ejercicio 2013, con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De acuerdo al artículo 1.3 que permite incrementar el importe de la convocatoria en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas y teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas y con carácter previo a la resolución de la convocatoria.

RESUELVO:

Primero.– Dar publicidad al incremento de la cuantía total de la convocatoria en 151.752 euros, así como de la modificación de la distribución por anualidades quedando una cuantía total de 645.535 euros, distribuida de la siguiente manera: 380.000 euros para el año 2011, 148.680 euros para el año 2012 y 116.855 euros para el año 2013.

Segundo.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco para general conocimiento.

Tercero.– Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en

egunetik aurrera, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoa betez.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 24a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
PEDRO LUIS ARIAS ERGUETA.

el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Cuarto.– La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de enero de 2011.

El Viceconsejero de Universidades e Investigación,
PEDRO LUIS ARIAS ERGUETA.